

ZARAUTZ COMPROMETIDO CON EL PROBLEMA DE LAS BASURAS MARINAS Y EL CUIDADO DEL MAR

Zarautz se vuelca con el cuidado del mar a través de la ciencia ciudadana con la ayuda del Barco Museo Ecoactivo MATER y Anillo Verde Azul de Zarautz. 713 zarautzarras han recogido 83,4 kg de basuras marinas, más de 8.500 elementos contaminantes, de ellos casi 4.000 microplásticos, retirados del medio marino.

De la mano del Barco Museo Ecoactivo MATER y contratado por el Ayuntamiento de Zarautz dentro de la agenda escolar 2030 y el proyecto del Anillo Verde Azul de Zarautz, ha involucrado a todos los centros escolares del pueblo y la ciudadanía en la labor de sensibilización ante la problemática de las basuras marinas. Durante el otoño-invierno de 2022-2023 se han realizado un total de 19 muestreos de basuras marinas en la playa de Zarautz de los cuales 7, han sido recogidas y caracterizaciones de basura marina y 12, han sido análisis de microplásticos del arenal.

Las recogidas de basura marina se han desarrollado con niños y niñas de hasta 12 años, mientras que los muestreos de microplásticos se han realizado con jóvenes de secundaria y formación profesional. Además, el 22 de enero se ofreció una jornada abierta a la ciudadanía en la que participaron familias del territorio en ambas actividades. Una jornada que culminó con la marcha de Bio y Zabor, los gigantes del mar que trasladan a la población los problemas que padece el mar y las virtudes de la biodiversidad.

Un total de 713 participantes en las recogidas y análisis de basuras marinas. En concreto 681 alumnas y alumnos de los centros educativos zarautzarras y 32 personas particulares, vecinos y vecinas del pueblo, todas comprometidas con el medio ambiente. "Gracias a la gran cantidad de participantes y datos recogidos, por primera vez se ha podido investigar el estado en el que se encuentra la playa de Zarautz respecto a las basuras marinas, a través de la ciencia ciudadana" explica Sara Lizarza, científica marina y responsable de proyectos de ciencia ciudadana de MATER.

Basuras marinas en datos

Durante las 7 jornadas de recogida de basuras marinas se ha logrado retirar 83,4 kg de basura costera y la media de captura ha sido 12 kg en cada actividad.

Los trozos de plástico no identificables, con un tamaño entre 0 y 50 cm, ha sido con diferencia el residuo más predominante, un 37,2 %. Seguidas de, 555 colillas recogidas y 541 bolsas, envoltorios y palos de chucherías. Es de remarcar la presencia de residuos higiénicos en la zona

de actuación (toallitas, bastoncillos, compresas) y se quiere trasladar la preocupación tanto por los hábitos de la ciudadanía, como por el posible foco en la red de saneamiento del municipio.

Microplásticos, el problema invisible

Una de las grandes problemáticas medioambientales a las que se enfrenta el mar son los microplásticos, fragmentos de plástico de entre 0 y 5 mm, casi imperceptibles para la vista, de los cuales se ha realizado un exhaustivo análisis. Se han analizado un total de 297 parcelas de 1 metro cuadrado a diferentes alturas de la playa. Basándose en protocolos estandarizados de ciencia ciudadana de análisis de microplásticos el resultado es el siguiente. Casi 4000 microplásticos, (en concreto 3957), con una media de 13,32 microplásticos por metro cuadrado. Lo que muestra la implicación dedicada y la gravedad de la problemática.

Los pellets, partículas de plástico del tamaño de una lenteja que son la materia prima de la industria plástica, han sido el tipo de microplástico más abundante. A partir del muestreo de comienzos de marzo de 2023, ha habido un aumento de la cantidad de pellets. Este aumento se relaciona con un accidente de un barco mercante que transportaba contenedores cargados de pellets, que ha podido perder parte de su carga en el Atlántico Norte y está contaminando las playas con estos microplásticos.

Con el trabajo realizado en Zarautz por la ciudadanía en esta iniciativa, no solo se ha logrado rescatar esta basura contaminante del mar, sino que además, se ha sensibilizado sobre la importancia de la prevención de residuos en nuestros hábitos diarios para lograr un ecosistema marino saludable que nos provea de bienestar y prosperidad.

Encargada del proyecto:

Sara Lizarza (Responsable de proyectos de MATER Ontzi Museo Ekoaktiboa)

proiektuak@mater.eus

690233355

Promovido por:

Erztun Berde Urdina-Zarauzko udala

zarautz@erztunberdeurdina.eus

943005159

ZARAUTZ ITSAS HONDAKINEN ARAZOAREKIN ETA ITSASOAREN ZAINTZAREKIN KONPROMETITUTA

Zarautzek hiritar zientziaren bidez itsasoa zaintzeko konpromisoa hartu du MATER Ontzi Museo Ekoaktiboaren eta Zarauzko Eratzun Berde Urdinaren eskutik. 713 zarautarrek 83,4 kg itsas hondakin bildu dituzte, 8.500 elementu kutsagarri baino gehiago, horietatik ia 4.000 mikroplastikoak, itsas ingurunetik kenduz.

MATER Ontzi Museo Ekoaktiboa, Zarauzko Udaleko Agenda 2030 Saila, Ingurumen Saila eta Eratzun Berde Urdinaren proiektuaren baitan, herriko hezkuntza zentroetako ikasleak eta herritarrak itsas hondakinen arazoaren inguruan sentsibilizatzeko inplikatu dira. 2022-2023ko udazken eta neguan, guztira, 19 laginketa egin dira Zarauzko hondartzan. Horietatik 7 itsas hondakin bilketa eta karakterizazioak izan dira eta beste 12, hondarretako mikroplastikoen analisisia izan dira.

Itsas hondakin bilketak 12 urte arteko neska-mutikoekin egin dira, eta mikroplastikoen laginketak DBHko eta lanbide heziketako gazteekin. Horrez gain, urtarrilaren 22an, jardunaldi irekia eskaini zen herri osoarentzat eta bertan lurraldeko familiek bi ingurumen jardueretan parte hartu zuten. Bio eta Zaborren martxarekin amaitu zen eguna, biztanleei itsasoak jasaten dituen arazoak eta biodibertsitatearen bertuteak helarazten dizkieten itsasoko erraldoien martxarekin.

Guztira 713 parte-hartzaile izan dira itsas hondakin bilketa eta analisisetan. Zehazki, Zarautzeko hezkuntza zentroetako 681 ikasle eta 32 partikular, herriko bizilagunak, ingurumenarekin konprometituak. "Parte-hartzaile kopuru handiari eta bildutako datuei esker, lehen aldiz ikertu ahal izan da Zarauzko hondartzaren egoera itsas hondakinei dagokienez, herritar zientziaren bitartez", azaldu du Sara Lizarzak, itsas zientzialari eta MATEReko herritar zientzia proiektuetako arduradunak.

Itsas hondakinak datuetan

Itsas-hondakinak biltzeko 7 jardunaldietan, kostaldeko 83,4 kg-ko hondakin bildu dira eta batez besteko bilketa 12 kg-koa izan da jarduera bakoitzean.

Identifikaezinak diren plastiko zatiak, 0 eta 50 cm bitarteko tamainakoak, izan dira, alde handiz, hondakinik ugariena, % 37,2arekin. Jarraian, 555 zigarrokin eta 541 litxarrereri poltsa, bilgarri edota makilak bildu zituzten. Azpimarratzekoa da hondakin higienikoen presentzia (toailatxoak, kotoiak, konpresak) eta horregatik, herritarren ohitura kaltegarriari buruzko eta herriko saneamendu sarean egon daitezkeen arazoei buruzko kezka plazaratu nahi da.

Mikroplastikoak, arazo ikusezina

Itsasoak jasaten duen ingurumen-arazo nagusietako bat mikroplastikoak dira, 0 eta 5 mm bitarteko plastiko-zatiak, begiarentzat ia hautemanezinak direnak. Prozesu honen baitan hauen azterketa zehatza egin da. Guztira metro karratu bateko 297 partzela aztertu dira hondartzako altuera ezberdinetan. Mikroplastikoak aztertzeko herritar zientzia protokolo estandarizatueta oinarrituta emaitzak ondorengoak dira: ia 4.000 mikroplastiko (zehazki 3.957) jaso dira, batez beste 13,32 mikroplastiko metro karratuko. Honek jardunaldietan parte-hartzaileek izandako inplikazioa eta arazoaren larritasuna erakusten du.

Pelletak, plastikoen industriaren lehengai diren dilista tamainako plastiko partikulak, mikroplastiko mota ugariena izan da. 2023ko martxoaren hasieratik laginketa egin zenetik, pellet kopurua handitu egin da. Igoera hori pelletekin kargatutako edukiontzia zeramatzan merkantzia-ontzi batek izan zezakeen istripu batekin lotuta dago, baliteke Ipar Atlantikoan zamaren zati bat galdu izana eta hondartzak mikroplastiko horiekin kutsatzen haritzea.

Ekimen honetan herritarrek Zarautzen egindako lanarekin, itsasotik hondakin kutsatzaileak berreskuratzea ez ezik, hondakinen prebentzioak gure eguneroko ohituretan duen garrantziaz kontzientziazteko balio izan du, oparotasuna eta ongizatea bermatuko digun itsas ekosistema osasuntsu bat lortzeko.

Proiektuaren arduraduna:

Sara Lizarza (MATER Ontzi Museo Ekoaktiboa proiektuen arduraduna)

proiektuak@mater.eus

690233355

Proiektuaren sustatzailea:

Erztun Berde Urdina-Zarauzko udala

zarautz@erztunberdeurdina.eus

943005159